


Arrasate



KIROLAK
**Behobia-
Donostia
lasterketa
igandean**

KULTURA
**Leintz-Gatzagan
artisan ferria**

IRITZIA
**Sylvie
Schiettekatte,
Quebec-en
gainean**

Sebero Altube

**Musikari, euskaltzale, filosofo
eta gure artean arrasatear ezezaguna**

RKUZ



altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaiak
Betiko muntaiak

FAGOR



Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 97



Aretxabaleta

Lurra da lekuko


Azterrian ibiltzeak asko erakartzen duela eta mundu berriak deskubritzeko aukera ematen duela onartuta ere, norberaren etxea eta bertako altxorrek ezagutzeko grina aseka ere badu bere lilura. Izan ere, gure euskal eremu txiki honetan badago bai bazter ikusgarririk...

Lehen eta orainak elkar topo egiten duten gunea da lurra, iraganeko zein gaurkoon arrastoak bere baitan gordetzen dituena. Horixe nuen gogoan joan zen igandean, Luzaideren gaineko Astobizkarraren inguratzen ninduten gailur, baso eta bailarei so. Orreaga nuen magalean, 778 gatazkari izena eman ziona, Karlomagno eta zorigaiztoko Errolanen hondamendiaren lekuko. Baskoi haiek gure etxearen babesle sutsu, artzai-soldadu izan zireneko garai hura irudikatu nahian aritu nintzen goitiki ikusten nituen bideen, aldapan eta harrien inguruan. Arrazoia ote literaturan hainbeste agertu den makilaz eta harriz hornitutako artzai bakartiaren irudiak, ala, Caro Barojak eta Agustin Azkaratek topiko hori zalantzan jarri dioten moduan, ez da posible defentsa sistema onik armarik gabe, erabakiak hartzen dituen nor gabe... Izan ere, inprobisazioz, instintoz eta askatasunaren nahi hutsaz ezin baitira hankaz gora jarri lehenen-

go bisigotuen eta gero frankoen ejerzitokak. Ez nuen, noski, erantzunik aurkitu, baina bai gaurko euskaldunaren aitzindaria, oraindik ere bera baino askoz handiagoak diren indarrei aurre egiteko kemena mantentzen baitu tinko.

Adiskide-gidari-istori kontalari paregabeak muga gisa jokatzeko duen mendilerroa erakusten zigun bitartean, erromatarrek, erromesek eta baita kontrabandistek ere erabili zituzten bideak hantxe begibistan genituenak zirela zioen. Zenbat urrats, zenbat bidaiak eta zenbat bidaiariren lekuko ote dira aldapa eta gailur hauek... Eta Euskal Herriaren gailurra zirudien txoko hartan nengoela, nahi bat piztu zitzaidan bihotzean: zerua, haizea eta lurra nire baitan gurutzatzen ziren gunen hartako lilura eta handitasun hura hitz xumetan adieraztea. Hona hemen.

KARMELE PEREZ



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketzailea:** Golo Arana. **Koiboratzailoak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Gokiolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Ixe-Ixa komiki taldea. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Francoek kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**



**BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK...**

Tfnoa: 71 46 08

Memesa
79 42 22




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN


Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

FELIPE
MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Altzarlak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Ikerne Heriz
Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Batile iraunkorrak

Ehizarik ez

Pixka bat pentsatuz gero edo beste bizitza-era batzuekiko sentiberatasun eta elkartasun apur bat edukiz gero, ezinezkoa da ehizaren alde egotea. Egin daitezkeen arrazonamendu guztiak daude jarduera suntsitzaile horren aurka.

Urtean milioika animalia hiltzen dira eta, ondorioz, espezie eta izaki ugari galtzeaz gain, ingurugiroan izugarriko desoreka gertatzen da. Animalia guztiak zeregin garrantzitsua betetzen dute lurrean. Naturak urteetan zehar bizi-armonia eratzen du bizitza-modu ezberdinen bidez eta zentzuzkoena horren kontra ez joate da.

Ehiza da lurreko hornodunak era ez-naturalean hiltzea eragiten duen ekintzarik nagusienetakoa.

Urtero-urtero tonaka berun botatzen da eta, ondorioz, milaka itsas-hegazti hiltzen da perdigo horiek irensteagatik.

Ehizak kutsadura akustikoa eta kimikoa sortzen du, pozoimota ugariren isurketa, tiro, ibilgailu, batida eta abarren bidez. Horretaz gain, paisaian izugarriko eragina duten milioika kartutxo botatzen dira lurrera, heriotza gogorarazi eta gure lurra pobretzen dutenak.

Bestalde, birpopulaketen aurka gaude; izan ere ehiztariek hiltzen jarraitzeko baino ez dute balio eta ondo baino hobeto frogatuta dago gure mendi eta ibaietan espezieak sartzea zein kaltegarria den. Baina, hala eta guztiz ere, guz-

ti hori jakin arren, euskal administrazioak babestu egiten ditu ehiztariak-eta, horrela, hondamen ekologikoa bizkortzen laguntzen du zuzen-zuzenean.

Biztanle gehienok, animaliak bizirik ikusteaz gozatzaren dugunez, ehizaren aurka gaude; beraz, gure eskubideak ez dira errespetatzen.

Gure gizarteak hausnarketa sakona egin beharra dauka portaerak aldatzeko. Gizarteak ez lituzke ehiztariak onartu beharko. Gizakiok planetan bizi garenon artean zati txiki bat baino ez gara. Animaliak maitatu eta errespetatu beharra daukagu. Ezin da plazer hutsagatik edo denbora pasatzeagatik hiltzen ibili.

Animaliek ezin dute abokaturik eskatu, ezta bakean uzteko herriko plazetan manifestaldirik egin ere. Baina denon erantzukizuna da Administrazioak ez ahaztea animaliak bizi direla, hor daudela, Lurrekoak direla, ez garelako pertsonok bakarrik bizi, legeek izaki bizi guztiak defendatu behar dituztela eta denon etorkizuna ziurtatu beharra dagoela etorkizuneko belau-naldiek Naturaren xarmak ezagut ditzaten. Gobernuak ehiza debekatu beharra dute eta gizakion eskubideak ezezik bizidun guztienak ere zaindu, ondorengo lemaz baliatuta: ezin dira bereizi pertsonen animaliekiko errespetua eta pertsonen arteko errespetua.

KLARA ELKOROBARRUTIA-EKI

PreS.O.S.

Azaroaren 7an Pedro Guriadi, Pedrotxo, preso politiko arrasatearrak 15 urte egin ditu espetxean, eta egun askatasun kondizionalean dago, jadanik kalean egon beharko lukeelarik. Beraz, legalki bahiturik daukate.

Arrasateko Amnistiaren aldeko Komiteak, bere duintasun politiko eta pertsonala omendu nahi ditu. Astebukera honetan burutuko diren mobilizazioetan bere koherentzia azpimarratu nahi dugu.

Orain, Pedrotxo Murtziako espetxean aurkitzen da, baina hainbat espetxeetatik pasatu da urte hauetan zehar, Estatu espainiarrak, "hemengo" hainbat alderdi politikoekin (EAJ, EA...) diseinaturiko dispersio penitentiarioaren ondorioz, beraien legeen arabera ilegala dena.

Bestalde, ez da kasualitatea Sevilla II eta Salto del Negron orain dela hilabete baino gehiago gose grebarotatibo eta Tenerife IIan mugagabeko gose greba bati ekiten, beraien bizi baldintza minimoak errespetatu daitezkeen. Preso hauek (ia 50 euskaldun eta 4 arrasatear) milaka kilometrorra daude. Tenerifen Gaultxorik eta Jon Agirrek 28 egun daramatzate barauan eta nahiz eta osasuna ahula izan ez dute nahi medikuen atentziorik, baizik "Instituciones Penitenciarias" delakoak giza eskubideak errespetatu ditzala.

Aski da! Giza eskubideak errespetatzeko, presoak Euskal Herrira!

ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA

Badakizu nor izan zen Sebero Altube?



Luis Velasco
Jubilatua
(65 urte)

Bai, baina ez dut gogoratzen. Askotan entzun du izen hori.



Pili Agra
Ikaslea
(17 urte)

Ez. Izen hori duen plaza bat dago, baina ez dakit nor izan zen.



Alberto Caballero
Langilea
(19 urte)

Izen hori duen plaza non dagoen badakit, baina gehiago ez.



Anabel Garcia
Langilea
(31 urte)

Sebero Altuberen plaza ezagutzen dut, baina nor den ez dakit.



Oscar Elizburu
Langilea
(34 urte)

Egia esanda ez. Bueno, uste dut musikaria edo idazlea izan zela.



Rosario Lasaga
Etxekoandrea
(63 urte)

Sebero Altube plaza ondo ezagutzen dut baina besterik ez dakit.



Felipe Zabala
Langilea
(30 urte)

Bai, plaza. Erdialdean dagoen plazaren izena da.



Eneida Arzamendi
Ikaslea
(14 urte)

Entzun dudanez jakintsu bat izan zen.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 45
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 63
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

10 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Johnny Mnenoti" 7etan eta 10etan.

• **PARISERAKO MARTXA**
 Martxara joateko gaueko 11etan autobusak irteerak dira Garibai geltokitik. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

• **PRESOEN EGOERAREN INGURUKO ASANBLADA**
 Arratsaldeko 7etan Sebero Altube plazan.

• **SAN MARTIN JAIK ARA-MAION**
 Zapzi Eskale taldearen emanaldia. Aramaioko zineman, gaueko 10.30etan. Sarrera: 800 pta.

ERLAJAZIO-MASAIK ETA BOLILLOEN IKASTAROA

Erlajazio-masaia ikastaroa ostiraletan goizeko 9.30etatik 11.30etara. Bolilloen enkaje ikastaroa asteartean arratsaldeko 6.30etatik 9etara. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak antolatuta. Informazio gehiagorako dei egin 79 04 59 zenbakira.

11 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "La flor de mi secreto" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ONCE-ko JAIALDIA**
 Musakolako kiroldagian. Ekintza desberdinak eguerdiko 12etatik arratsaldeko 8etara. Bazkaria 2.30etan izango da. ONCEko langileak eta erakundeko arduradunak izango dira bertan.

• **SAN MARTIN JAIK ARA-MAION**
 Eguerdiko 12etan meza eta ondoren umeentzat jolasak eta trikiritxa. 2.30etan herri bazkaria. 4etatik 8etara Globo Aerostatikoa, umeentzat parkea eta Araiako banda. 8etan Elizan kontzertua eta gaueko 11etan Txinparta taldearekin dantzaldia.

• **TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON ARRASATEN**
 Txirri, Mirri eta Txiribitonen "Alakuidaus" ikuskizuna Amaia antzokian arratsaldeko 5etan eta 7etan. Sarrera: 600 pta.

• **TXATXILIPURDI AED-KO LUDOTEKA ERGUINEN**
 Goizeko 11etatik ordu bata arte Erguingo Herri eskolan. OHOKo lehen mailatik 8. maila artekoek zuzenduta.

12 IGANDEA

• **ZINEA**
 "La flor de mi secreto" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ARTISAU LANGINTZEN AZOKA GATZAGAN**
 Leintz Gatzagan Artisau langintzen azoka Frontoian. Ordutegia: goizez 10.30etatik 2etara eta arratsaldez 5etatik 8ak arte.

• **OMENALDIA PEDROTXORI**
 Arratsaldeko 7etatik aurrera herriko plazan, txalapartariak, bertsolariak, lore-eskaintza, aurrekulariak... Omenaldia bukatu ondoren manifestaldia.

• **ANTZERKI PERFORMAN-CEA**
 Frankfurtoko Art -Und Shock eta Danimarkako Dottir antzerki taldeen eskutik Gattetxean, arratsaldeko 7etan. AGAKOk antolatuta.

AITA MENNIKO GAIKOEN ERAKUSKETA

Azaroaren 17tik 27ra Aita Menniko gaisoak egindako lanen erakusketa arratsaldeko 5etatik 9etara. Donostiako Garibai kalean Kutzako aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 10
 Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.
 10ak arte: Amezua. Santamaina.
Larunbata 11
 Egunez eta gauez: Puy. Bergara.
 10ak arte: Ruiz. Maala.
Igandea 12
 Egunez eta gauez: Puy. Bergara.
 10ak arte: Morales. San Andres.
Astelehena 13
 Egunez eta gauez: Cuellar. Bergara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
Asteartea 14
 Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
 10ak arte: Español. Iturriotz.
Asteazkena 15
 Egunez eta gauez: Mozas. Bergara.
 10ak arte: Corcuera. Musakola.
Osteguna 16
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.



ONCE-ko JAIALDIA
Musakolako kiroldagian. Ekintza desberdinak eguerdiko 12etatik arratsaldeko 8etara. Bazkaria 2.30etan izango da. Bostehun lagun inguru bilduko dira.

13 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"La flor de mi secreto" 7etan eta 9.30etan.
- **BIZITZA NATURALARI BURUZKO HITZALDIA**
Bizitza Naturalari buruzko hitzaldia Monterronen arratsaldeko 7etan. Hizlaria: J. Amigó.
- **IX. FAMILIA-ASTEA, HITZALDIA**
Gaia: Sexualitatea, komunikazioa eta maitasuna. Hizlaria: Secundino Gonzalez pedagogo eta sexologoa. Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal Herria Askatu lemapean kontzentrazioa arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.
- **IPUIN-KONTALARIA**
Estrella Ortiz ipuin kontalariak bi saio emango ditu: goizeko 10.15etan eta 11.30etan. Haur liburutegian.

IV. KOMIKI LEHIAKETA

Lehiaketan OHO ko 6. mailatik gorako edozeinek har dezake parte. Lan guztiak argitaraga-beak eta euskeraz idatzita izan beharko dute. Baloratuko dena: euskararen aberastasuna eta zuzentasuna, argumentoa eta marrazkien kalitatea eta originaltasuna. Lanak aurkezteko epea abenduaren 14an bukatuko da. Sari banaketa abenduaren 29an arratsaldeko 8etan egingo da. Lanak taldean aurkeztea posible izango da. Jardun elkar-teak antolatuta.

14 ASTEARTEA

- **ZINEA**
Ikuslearen eguna. "La flor de mi secreto" 7etan eta 9.30etan.
- **ENKARTELADA**
Senideak-ek antolatuta, 7etatik 8etara Portaloian.
- **DIAPPOSITIBA EMANALDIA ESKORIATZAN**
Gaia: Chamonix-eko Glaziarrak. Emalea: Nekane Intxausti. Arratsaldeko 6.30etan kultur etxean.
- **IX. FAMILIA-ASTEA, HITZALDIA**
Gaia: Familiaren funtzioa elizan eta gizartean. Hizlaria: Juan Antonio Fernandez. Udaletxean arratsaldeko 7etan.



AEROBIC FITNESS IKASTAROA

Azaraoren 25ean Musakolako kiroldegian. Orduategia goizeko 10etatik arratsaldeko 6.45etara. Kirol hori praktikatu eta irakasten dutenentzat dago zuzenduta. Izena emateko epea azaroaren 20an bukatuko da. Prezioa: Deba Garaiko kirol zerbitzuetako bazkideentzat 3.000 pta. eta gainontzekoentzat 4.500 pta.

TAICHI IKASTAROA ARRASATEN

Azaroaren 18an goizez eta arratsaldez eta 19an goizez Musakolako elizaren lokalean Taichi ikastaroa Eskoriatzako Taichi taldeak antolatuta. Irakaslea Valentin Zurbano. Informazio gehiagorako deitu 71 41 91 zenbakira.

15 ASTEAZKENA


- **BIZITZA NATURALARI BURUZKO HITZALDIA**
Monterronen arratsaldeko 7etan. Hizlaria: J. Amigó naturista.
- **BIDEO EMANALDIA ESKORIATZAN**
Gaia: Aizorrotzeko historia, arratsaldeko 7etan kultur etxean.
- **IX. FAMILIA - ASTEA, HITZALDIA**
Gaia: Familia eta elizaren arteko harremanak gehiago bul-tzatuz. Hizlaria: Patxi Otamendi, apaiza. Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan.

16 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"El favor" 7etan eta 9.30etan.
- **ZINE KLUBA**
"Exótica" filmea. Zuzendaria: Atom Egoyan. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 350 pta. eta gazte txartelarekin 300 pta.
- **BIZITZA NATURALARI BURUZKO HITZALDIA**
Monterronen arratsaldeko 7etan. Hizlaria: J. Amigó naturista.
- **UMOREZKO FILMEA MONTERRONEN**
Umirezko filmea arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Uri-barriko jubilatuta etxeak antolatuta.

ERAKUSKETA BERGARAN

Abenduaren lehen egunetan Eluska Zabalo Monje 13 urteko margolari arrasatear-rrak erakusketa jarriko du Bergarako Nahikari tabernan.



ZINE KLUBA

"Exótica" filmea. Zuzendaria: Atom Egoyan. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 350 pta. eta Gazte Txartelarekin 300 pta.

“Zer gertatzen ari da CCOOn?”

Ez da erraza ulertzea Antonio Gutierrez idazkari nagusia eta Agustin Morenok bultzatzen duen sektore kritikoaren arteko tira-bira latzak ulertzea. Asko laburtuz, gertatzen ari ez dena kontatuko dut. Ez da botorea lortzeko burokrazian dauden arteko borroka; ezta IUk politikoki erabakitzen duenari apal-apal erantzungo dion sindikatu mantsoa egiteko saiakera ere eta ezta kontrako bidetik abiatzea ere, hau da, guztiz aldatu eta kontserbadore, korporatibo eta antidemokratiko bihurtzea, sindikatu honen tradizioa eta balore sindikalak alde batera utziz.

(...)

Egun kritiko diren askok erantzukizun postuak dituzte, eta zuzendaritzaren gehiengoaren aurka asko esaten badute ere, beren eguneroko lan sindikala ez da apurtxo bat ere bereizten zuzendaritzak egiten duenetik... denbora beharko da Morenoren inguruan bildu den sektoreak sindikatuaren benetako korrerronte ezkertiar gisa sendotzen den ikusteko.

Juan Ramon Garai, azaroak 5.

ARGIA

“Prozesua ez da sekula amaitzen. Betik gogoratzen dut On Jose Mariaren esaldi bat, gure obligazioa egiteko jarreran egotea zela eta ez egindako jarreran, bigarren hau ez da oso malgua izaten eta gainera berrikuntzerako joera txikia izaten duelako.

Ondorioz aurrera jarraitu beharra dago, proiektua goera berrietara egokituz. Nire etapan aurrerapasu bat gertatu da, baina hori ziurtatu egin beharko da”.

Javier Mongelos, TU Lankide, urria.

TU Lankide

Zertarako antolatu duzue emakumeen presentzia aztertzeke topaketa?

Emakumeek herriko elkarteetan parte hartze zuzenik ez dutela ikusirik, emakumearen presentzia zein den aztertzeke topaketa antolatzea erabaki dugu Udaleko Kultura, Gazteria eta Emakumearen sailak. Emakume asko elkarteetako bazkide izaten da baina normalean gizonezkoek izaten dute ardura handiagoa. Topaketaren bidez egoeraren inguruko hausnarketa edo erreflexioa egin nahi dugu.

Elkarte desberdineko ordezkariek gonbidatu ditugu topaketara baina nahi duenak ere har dezake parte, hau da, elkarteetan karguren bat dutenek edo besterik gabe interesatuta daudenak. Parte hartzeak, gainera, ez du esan nahi konpromezuren bat hartu beharko dutenik. Hala ere, emakumearen presentzia bultzatzea lortu nahi da eta gustatuko litzazuke partaideak zerbait egiteko gogoz irtetzea.

Azaroaren 24an eta 25ean izango dira topaketak eta Durangoko berdintasunerako agentearen laguntza izango dugu, gai honen inguruan aditua da eta. Lana taldean egingo da, elkarte bakoitzeko kideek partaide diren taldearen inguruko berri emanek, eta ondoren datuak aztertuko dira. Oraindik guztiz zehaztu barik dugu zein izango den egitaraua baina hauek izango dira aztertuko diren gaiak: giza mugimenduan emakumearen partaidetzaren garrantzia, emakumearen partaidetza elkarteetan eta herrian, nolako elkarteetan dago emakumea... Aurrekontuari dagokionez 150.000 pezetako kostua izango du topaketak.



Rosa Mondragon
Emakumearen Berdintasunerako Agentea.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Koktelak jaurti eta Argentaria sukurtsala hondatu

Ostiralean, gaueko 11.30ak inguruan, lau edo bost gaztek molotov koktelak bota zituzten Argentariak Olarte kalean aurki zabaldu behar zuen bulegora. Argentariaren egoitzak su hartu zuen, eta bulego gaineko etxebizitzetako bizilagunak, Ferrerias 8 eta 8 bis-ekoak, kalera irten behar izan zuten suhiltzaileen laguntzaz. Sutearen ondorioz Argentiariaren bulegoa erabat hondatuta geratu da, eta kalteak handiak izango direla uste da.

Ertzantzak ez du oraindik atxiloketarik egin baina ostiral gauean, Mapfre aseguru bulegoaren atzealdean, molotov koktelez betetako motxila bat aurkitu zuten. Motxila Bilbora bidali dute hatzeta-ko ikerketa egiteko.

Txikizioak Santa Barbaran

Beste hainbat asteburutan bezala, joan den honetan ere gazte taldeek txikizioak eragin zituzten



Bi manifestaldi ostiralean

Borroka Eguna izan zen ostiralean Gestorak deituta eta inguruko ikastetxetako hainbat ikaslek greba egin zuen, eguerdian manifestaldia eginez. Arratsaldean beste manifestaldi bat izan zen eta bertara inguruko herrietako jendea hurbildu zen. Bukaeran istiluak izan ziren Ertzantza eta manifestarien artean. Presoen eskubideak aldarrikatzea izan zen manifestazioen helburua.

Astelehenero Euskal Herria Askatu lemapean plazan egin izan den kontzentrazioa, aste honetan Batzokiaren aurrean egin zen.

Santa Barbara parkean. Zuhaitzen adarrak eta huntza hazten den paretetan hostoak apurtu eta lurlean botila eta zakar asko utzi zuten bertara joandako batzuk. Itxura denez, gazte batzuk parkean edateko ohitura dute eta ondoren gauzak apurtzen hasten

dira. Noizbait parkeko ahateek hartu dute harrikadaren bat.

Bikaina Gozategi z Blai emanaldia

Jende ugari izan zen ostiral gauean Gozategi z blai ikuskizunean. Gozategi

taldeko musikariek emanaldi bikaina eskaini zuten eta dantzari gazteek ere ederto dantzatu zuten. Gozategiaren musika ezin eserita entzun eta dantzariekin batera eszenatokian dantzan bukatu zuen jende askok.

JAIOTZAK

- Miren Perez Kortabarria. Urriaren 17an.
- Maite Uribesalgo Diaz. 23an.
- Eneritz Salcedo Arana. 28an.
- Saioa Errasti Garcia. Azaroaren 1ean.
- Antxon Arregi Iturbe. 3an.

EZKONTZAK

- Marcelino Caballero Pozo eta Ane Isabel Najera Ortigosa. Urriaren 21ean. Elizaz.

HILDAKOAK

- Albino Arabaolaza Alzelai. Urriaren 20an. 81 urte.
- Juan Iturralde Galdos. 22an. 83 urte.
- Marcela Zubia Zubia. 22an. 86 urte.
- Catalina Sanchez Lopez. 28an. 84 urte.
- Joakin Unanue Etxaide. 31n. 83 urte.
- Agustina Lete Alberdi. Azaroaren 1ean. 83 urte.

Gabonetarako egin ezazu betirako opari bat, eta...

Zuretzat beste opari bat lortu ahal izango duzu NAROKIn.

10.000 ptatik gorako erosketa egiten duzuenen artean urrezko gargantila eta eskuturrekoa zozketatuko dira.

Erdiko kale, 23
ARRASATE • Tfnoa: 79 20 47





* Sylvie Schiettekatte

Quebec: bere nortasuna erabakiz

Guztiok izan duzue pasaden urriaren 30ean Quebec-en burututa-ko erreferendumaren berri. Izan ere, erreferendum honen arrazoia hileetan zehar iraunduen kontsulta prozesu bat izan da. Lege aurreproiektu bat atera zen eta Quebec-eko etorkizunari buruzko 19 batzorde sortu ziren, jendeari iritzia eskatzeko. 55.000 lagun baino gehiagok eraman dituzte aurrera lan horiek, eta 5.500 txosten aurkeztu ziren. Prozesu horretan, edozein pertsonak edo eta erakundeak Quebec-eko etorkizunari buruz zituen kezak eta nahiak adierazi ahal izan zituen, benetako gizarte proiektu baten marrazketan lagunduz.

Subiranotasunera iristeko prozesuak erabat demokratikoa izan behar zuela, quebec-tarrek prozesu horretako partaide izan nahi zutela, eta erabat informatuta egon nahi zutela indar handiko

akordioak ziren. Gehienok poztu egin gara erreferendum kanpainaren inguruan egon den lasaitasunagatik eta demokrazia errespetatu egin delako. Zentzu horretan salatu daitekeen gauza bakarra Kanadak eta herrialde horretako Lehen Ministroak Quebec-eko arazoetan sartzeko egin dituen saiakerak izan dira. Horrela, erreferenduma egin baino 5 egun lehenago, Kanadako Lehen Ministroak nazio mailako larritasun mezu batean iragarri zuen Quebec-eko subiranotasunari baiezkia emateak Kanadaren suntsipena ekarriko zuela. Hurren-

.....
“Botu frankofonoa zatitu egin da, besteak beste, ezezkaren aldeko multzoak eskaini duen beldur kanpainaren eraginez”

go egunean Kanada osoko garraiolariak (airezko eta lurrezkoak) Montreala joan eta bere “maitasuna” aitortu nahi zion edonori %90eko beharpena eskaintzen zioten: era horretan iritsi ziren 35.000 ingeles. Egun horietan Kanadako gainontzeko probintzietako ia Lehen Ministrari guztiek, era batera edo bestera, esan zuten Quebec desberdina zela eta Kanadak hori onartu beharra zuela. Erreferendumaren bezperan, probintzia batzuetako telefono konpainiek Quebec-erako bost minutuko deiak oparitu zituzte, quebec-tarrak ezezkia eman zezaten konbentzitzeko. Jakina, gastu horiek guztiak ez ziren hauteskunde gastuetan sartu... eta 31aren urrian, martitzena, probintzietako Lehen Ministroek aurrez esandakoari buelta emanez, adierazi zuten oraingoz Kanadako konstituzioa ez zela aldatuko (Quebec-ek sinatu gabekoa), Quebec-eko herria gizarte desberdin bezala onartzeko.

Oraingoan ere (1980ko erreferendumean bezala), botu frankofonoa zatitu egin da, besteak beste, ezezkaren aldeko multzoak eskaini duen beldur kanpainaren eraginez. Baina 15 urtetan, herriaren %10ak iritzi aldatu du. Hurrengorako ez dugu hainbeste denbora itxarongo. Jacques Parizeauk zioen bezala (Quebec-eko Lehen Ministro ohia, erreferendumaren hurrengo egunean dimisioa aurkeztu zuena): “berriro ekingo diogu”.

° **ARRASATEN BIZI DEN QUEBEC-TARRA**

USTEAK USTE

ELKARRIZKETAREN BIDEA
Senideak-ek presoan giza-eskubideen aldeko mozioa aurkeztu zuen azken plenoan. Erabat onargarria, nire iritziz, bere burua demokratizatzen daukan edonoren aldetik. EAJK, erantzun gisa, begien aurrean Aldaiari buruzko beste bat jarri zien senideei. Beltza txuriarekin nahasteko gogoa itxuraz.

Mozio alternatiboari erantzuteko, pleno aretoan bertan, arraultza jaurtiketa. Unea eta tokia burua eta hitzak erabiltzekoak ziren, ez arraultzak; horrek beste zeregin batzuetarako dira, jaurtiketarako baino atseginagoak edo gozagoak, aukeraren arabera.

Herri-giroan bizi den tentsioa areagotzeko su artifizialak ostiral gauean; hau da, berez sortzen ez direnak. Eta jendea, ez kiskaltzeagatik, oheko epeltasuna utzi beharrean, eta gustora irten ahal izan zirelako.

Elkarrizketa aldarrikatu behar dut, horretarako gogoa eta guraria daukat. Izan ere: 1) Arraultzek kalte egiten didate. 2) Badakit zer den norberaren etxea suaren ondorioz galtzea. 3) Orain gutxira arte senide bat izan dut gartzelan eta orain bi astetik kuadrilako bat. Nahikoa da!

BEÑARDO KORTABARRIA

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilloa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE



- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburesak, sandwichak,...

Prezio guttiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69



URTEKO AUKERA

**Zure turismoa
CHAPIME TAILERRAK-en
erosten baduzu...**

- Aparteko deskontua izango duzu
- Gainera zure erosketa ospatzeko opari bat jasoko duzu
- Eta zure ametsak abenduaren 22ra arte bakarrik atzeratzeko aukera izango duzu

Ezin duzu aukera hau pasatzen utzi!

*Eskaintza hau stockean dauden autoentzat da baliagarria.




Chapime Tailerrak

Araba Etorbidea, z/g. Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22. ARRASATE

Lehenbailehen bukatu nahi dira tren geltoki zaharreko obrak

Langile profesionalak bukatuko dituzte tren-geltoki zaharreko obrak. Bi milioi eta ehun mila pezetatan, obraren zuzendaritza eraman duen teknikariari adjudikatu dio Udalak obraren amaiera.

Orain arte ikasleak aritu dira eraikina konpontzen eta bitartean lanbide bat ikasteko aukera izan dute. Kanpoaldea berritu ondoren, barrualdeko lana egitea falta da orain, eta eraikina lehenbailehen gertu izateko premia dagoenez, langile kualifikatuak kontratatuko dira. Hasi-ratik pentsatua dagoen moduan, eraikina gertu egondakoan INEMek bertan izango du egoitza. Urte amaierarako INEMen egoitza berriz ere Arrasaten izango dela



Urtea bukatu orduko eraikin honetan izango du egoitza INEMek.

espero da.

Orain arte INEMek, Man-komunitateak eta Udalak parte hartu dute geltokiaren berri-tze proiektuan. Bukaera, berriz, Udalaren esku geratu da.

INEMen kokalekua eztabaidagai

Azken udal plenoan eztabaida luzea izan zen INEMen aurka egin zen sabotai ekin-tzaren inguruan.

PSE-EEK eta EAJk adierazi zuten, atentatuaren ondorioz INEMek ez zuen oso garbi berriz ere Arrasatera itzuliko ote zen. EAJk adierazi zuenez, gainera, Deba Garaiko udalerrri batek herri horretan egoitza jartzeko aukera eman zion INEMi. X. Zubizarreta alkateak, berriz, INEMen helburua Arrasatera itzultzea zela aipatu zuen. Obrak bizkor-bizkor bukatu asmoz, obra adjudikatzearen aukeraz hitzegin zuen alkateak.

Azkenean, hirukoak aurkeztutako mozioa aurrera irten zen baina baita Ezker Batua-ren lehena, udalbatzari INEM berriro Arrasaten jartzeko nahia azal zezala eskatzen zuena.



Bonaventure
Diesel
Pepe
Levis

Sport eta gazte moda

Otalora, z/g ARRASATE
Tfnoa: 79 11 72





Ostiral gauean egindako erasoak erabat hondatuta utzi zuen Argentariaren sukurtsala.

Hamabi familia etxetik kanpo atentatuaren ondorioz

Ferrerias zortzi bis-eko hamabi familiek, ez dute etxean urik, berogailurik eta saneamendurik eta hondatutakoa konpondu bitartean, beste etxe batzuetara joan behar izan dute bizi izatera. Zortzi zenbakiko bizilagun gehienak, berriz, euren etxeetan daude nahiz eta sutearen ondorioz ur berorik eta berogailurik ez izan.

Ostiraleko sabotaiaren ondorioz etxean kalteren bat izan dutenek salaketa jarri dute Ertzaingean. Asegurua kobratzeko beharrezkoa da salaketa jartzea eta guztira hogeitabat egin dira. Etxebizitzetako bizilagunek ezekiz, Argentariako zuzendariak eta loka-

laren jabeak ere jarri dute salaketa.

Bizilagun horiek, idatzi bat zuzendu diote herriari, horrelako ekintzekin herritarren bizitzak arriskuan jartzen direla salatuz. Bukaeran herriari eta Udalari zera eskatu diote: horrelako ekintzen aurrean euren desadostasuna azal dezatela.

Ezker Batuak alde batetik eta hirukoak bestetik ere idatzi bana kaleratu dute ekintza gaitzesteko. EBrentzat horrelakoak lekuz kanpo daude eta ez dute justifikaziorik. EAJ, PSE-EE eta EAK bat egin dute kaltetuekin, eta ekintza horiei laguntza politikoa eskaintzen dietenen jarrera salatu dute.

Kontrabandoan

Asteartean, goizaldeko 2.30ak inguruan, 16 tabako kaxa aurkitu zituen Ertzantzak herriko tailer batean. Guztira 8.000 tabako kaxa topatu zituzten eta tabakoak merkatuan 2.200.000 pezetako balioa izango luke.

Ur fluoratuarekin ados ez

Apurka-apurka gero eta fluor gehiago botatzen dio Osakidetzak Urkuluko urari. Gipuzkoako Uren Partzuergoak horren berri eman ez idatzi bat bidali du Udalera baina gobernu taldeak beste bat bidaliko du bere desadostasuna azaltzeko. Gobernu taldearen ustez, fluorra administratzeko modua ez da egokia, jende guztia behartzen da-eta ur fluoratua edatera.

Eskelak zabaldu

Jose Mari Loitiren izenarekin eskelak jarri ziren asteazkenean herriaren erdialdean. Eskelez gain, EAJko zinegotziaren argazkia zuen panfletoak zabaldu ziren, "zureak egin du" esaldiarekin.



Parques
y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

1996rako UDAL ZERGA ETA TASEN PREZIOA INGURUKO HERRIETAN

	Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza	Gatzaga	Bergara	Oñati	Antzuola
Hiri lurraren gainerako zerga (IBI) (Kontribuzioak)	%0,54	%0,54	%0,57	%0,59	%0,57	%0,66	%0,55
Iharduera ekonomikoaren gainerako zerga (IAE)	1,32	1,3	1,47	1,25	1,41	1,58	1,00
Autoak							
• 8-12 zaldi fiskal (Pta.)	7.940	7.710	7.488	7.650	7.885	7.562	7.410
• 12-16 zaldi fiskal (Pta.)	16.760	16.280	14.529	16.125	16.645	15.963	15.640
Ur errezipioa orokorrean (Hiru hilabetero eta ur kontsumoa minimoa den kasuan: 30 m ³)	3.175	4.029	4.415	2.812	5.881 ⁽¹⁾	3.285 ⁽³⁾	3.226
• Ura m ³ bakoitzeko (Pta.)	46	67	70	32	83	78	45
• Saneamendu tasa (Pta.)	276	603	1.095	307	840	460	405
• Zaborra (Pta.)	1.245	1.275	1.220	1.275	1.195	794	1.225
• Kontagailuaren mantenimendua (Pta.)	137	— ⁽²⁾	— ⁽²⁾	160	251	167	130
1996rako udal zerga eta tasen iguera	% 3,5	%4,5	%4,0	% 3,5	%4,3	%4,5	%4,3

⁽¹⁾ Bergaran ur kontsumo minimoa 40 m³ dira. ⁽²⁾ Herri horietan ez dute tasa hori. ⁽³⁾ Ur errezipioa bi hilabetero pasatzen da eta ur kontsumo minimoa 20 m³ dira.

Udal zergatan Arrasate merkeena

Inguruko herriekin konparatuz gero, Arrasatek ditu udal zerga eta tasa merkeena. Autoetan prezio garestiena duen arren, ur errezipioa txikiagoa izaten da Arrasaten. Uraren prezioa eta sanea-

mentu tasa, adibidez, askoz ere merkeagoak dira. Gatzagan merkeagoa da baina depositoa handitu egingo denez, eta depuragailu berria jarri, datorren urtean uraren prezioak gora egingo du.

Udal zergen eta tasen prezioa udal bakoitzak erabakitzen du. Arrasateren kasuan, ur errezipioaren bidez herri-tarrendandik jasotzen den dirua ez da nahikoa izaten zerbitzuaren kostuari aurre egi-

teko. Horregatik, Udalak beste diru kopuru bat jartzen du horretarako. Bergarako eta Oñatiko kasuan, berriz, sarreren bidez zerbitzuaren kostuari aurre egiteko beste jasotzen da.



YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorena leihoetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



ZABALDU BERRIA!!

SABURDI
urdaitegia • harategai

Sebero Altube, 7
ARRASATE
Tfnoa: 79 86 15

IZEN PROPIOAK

● Deba Garaia Goiherri UGTko metal saileko exekutiba berriko ordezkariak ondorengoak dira: Idazkari Orokorra **Rafael Gomez** arrasatearra. Erakundeko idazkaria **Faustino Petite** arrasatearra. Administrazioarako idazkaria **Valentin Romero** arrasatearra. Ekin-tza sindikaleko idazkaria **Francisco Gil** arrasatearra. Eraketako idazkaria **Isidro Alvarez** Zumarragakoa. Bailerako idazkariak: **Alfonso Alvarez** Aretxabaletakoa eta **Jose Luis Herranz** arrasatearra. Bestalde, Batzorde probintzialerako izendapenak egin dira eta hauek dira ordezkariak: **Rafa Gomez, Alfonso Alvarez, Jose Panizo, Valentin Romero** eta **Faustino Petite**.



Nortzuk dira argazkikoak? Zer dela eta batera guztiak?. Argazki honek bere historia du. Bertan agertzen diren gazteak **Doctor Ibañez kalean bizi dira eta txikitari batera ibiltzen ziren**. 15 urte dela bakoi-

tzak bere lagun taldea egin eta banandu egin ziren. Hala ere, txikitari lagunak ez dira nolanihi ahazten eta 15 urte pasa diren arren, berriro elkartzea erabaki dute guxtienez afari bat egiteko. Hostalean izan zuten afaria

eta aurten lehen urtea izan bada ere urtero errepikatze-ko asmoa dute. **Jose Luis Eraña, Asier Arizabaleta, Lazaro Perez, Jabi Iturbe, Juan Ignacio Sanchez, Gaizka Eraña** eta **Jon agirre** dira.



Santiago Gonzalezek, 28 urte eman ditu Udaltzaingoan. 1958ko urriaren 25ean hasi zen udaltzain lanean eta duela egun batzuk jubilatuko egina da. Arrasateko Udaltzainek era berezian agurtu nahi izan dute horrenbeste urtetan lankide izan duten laguna eta afari bat egin zuten bere omenez. Afarian jakina, oroigarri bat oparitu zioten Santiri.



Elektroinjekzio
Zerbitzua

LUCAS



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Al Andalus eta Corazón de Encina

Kultur taldeek jaialdi bi burutu zituzten larunbatean bakoitzak bere aldetik. Al Andalus elkarteak V. Udazkeneko jaialdia antolatu zuen Eskoriatzako frontoian eta Corazón de Encinak bere lokalaren bigarren urteurrena.



Argazkiko lagun taldea **Errioxara** bertako ardo gozoa edatera eta babajana egitera joan zen domekan. Lagun hauek Tourreko porran hartu zuten parte. Porra berezia izan zen hauena. Irabazten zuen txirriindulariaren jabeak dirua jarri behar zuen, normalean alderantziz bada ere. Itxura denez diru mordotxoa batu zuten eta Errioxa aldean primeran inbertitu dute Tourrari esker aurreztutakoa.



Mondra sport saioko Meca lehiaketan, Twingo auto dotorea oparitzen eta astelehenean zozketa egin ondoren, Deiane Moreno izan zen irabazlea. Deiane Txatxilipurdiko Ludotekan dabil eta bertatik idatzi zuen. Egia esateko ludotekako neska mutil guztiek idatzi zuten eta zorteduna Deiane izan zen. Zorionak!

ne Txatxilipurdiko Ludotekan dabil eta bertatik idatzi zuen. Egia esateko ludotekako neska mutil guztiek idatzi zuten eta zorteduna Deiane izan zen. Zorionak!



Profesional mailako pilotari onenak izan ziren Import-Arrasate lantegian joan zen astean. Asteartean Asegarceko eskuzko eta erremintako pilotari guztiak, enpresako ordezkariekin batera etorri ziren. Ostiralean Altikekoen txanda izan

zen eta Juan Carlos Altik enpresaria buru zela 16 pilotari bildu ziren Arrasateko enpresan. Astoreko arropa berria eta instalakuntzak ikusi ondoren, Asegarceko eta Altikeko pilotariak Bedoñan bazkaldu zuten



Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Boskarren ihardunaldia.*
- *Protagonistak: Jon Beitia eta Gregorio Gallego.*
- *Taldeen aurkezpena: Los Heredia, Danok Lagun, Sokoakoak eta MSM Ingenieria Industrial.*

Azken ihardunaldian Las Dalton taldeko Txumai atezainak lesio larria izan du eta astelehenean ebakuntza egin zioten. Une honetan hobeto dago, baina oraindik hilabeteak igaroko dira berriro Zaldibarren ikusi arte. Bestalde, Argi Ibilik berriz galdu du, Sokoakoak taldearen kontra oraingoan 3 eta 1. Kopyprest eta Kriskibaldak denboraldiko lehen garaipena lortu dute 5. ihardunaldian.

Kontu kontari ari garen honetan esan behar da Zaldibar txapelketan portugesak ere badirela. Construcciones Fercon taldeko jokalarriak obra batzutan ari dira lanean eta denbora dexente egon behar direnez Arrasaten, txapelketan parte hartzera animatu dira. Bukatzeko antolatzaileek Txarokis eta Gualtrapas taldeei bi puntu kendu diete epaitu behar zuten partiduetan gano-ra ez jartzeagatik.



**Felipe
Arrizabalaga
AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Orlando Piratas	5	5	0	0	34	5	10
Sokoakoak	5	4	1	0	34	15	9
Arrasate Kirolak	5	4	1	0	17	8	9
Sortu Informatika	5	4	0	1	39	18	8
Frantziskanner	5	3	1	1	22	11	7
Kamasutra	5	3	1	1	17	9	7
Totem	5	3	1	1	22	15	7
D.A Iriztu	5	3	0	2	27	14	6
Argi Ibili	5	2	1	2	22	21	5
Jotakabau	5	1	3	1	15	19	5
Gualtrapas	5	2	0	3	20	18	4
Uglys Txinato	5	1	2	2	19	24	4
Kakajauri	5	1	0	4	16	22	2
Bukanak	5	1	0	4	15	24	2
Alealee	5	1	0	4	12	32	2
Toss Tehaman	5	1	0	4	11	38	2
Tronkoteak	5	0	1	4	2	10	1
Gaztetxokoa	5	0	0	5	12	53	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	5	4	1	0	26	14	9
AC Surcos	5	4	1	0	20	12	9
Okoretegi taberna	5	3	2	0	16	5	8
Adelaida Haizea	5	4	0	1	37	14	8
Txeyenex	5	4	0	1	22	10	8
Lorategi	5	3	0	2	11	8	6
Hirei	5	3	0	2	14	11	6
DKB	5	3	0	2	19	18	6
Ojo Avisore	5	2	1	2	10	16	5
Aizpun Bila	5	2	1	2	9	11	5
Altza Porru	5	2	0	3	15	15	4
Los Heredia	5	2	0	3	10	11	4
6º Proiektua	5	2	0	3	14	17	4
Fraguel Gol	5	2	0	3	11	15	4
Kopyprest	5	1	0	4	14	36	2
Berango Sukald.	5	1	0	4	11	16	2
Los Dalton	5	0	0	5	10	30	0
Kirten Tropel	5	0	0	5	4	22	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Anbotoste	5	5	0	0	26	7	10
Betrayer	5	4	1	0	26	16	9
A ti que te importa	5	4	0	1	19	16	8
Irati STS	5	4	0	1	17	12	8
Trikiti	5	3	1	1	21	10	7
Borrock Roll	5	3	0	2	19	14	6
Lautherbrunnen	5	3	0	2	35	20	6
Ganbelas	5	3	0	2	15	15	6
Nuevo taberna	5	1	3	1	17	12	5
Los Dimy	5	2	1	2	16	17	5
Insert Coin	5	2	0	3	18	17	4
No Comment	5	2	0	3	14	15	4
Potosorri	5	2	0	3	10	13	4
Txarokis	5	1	0	4	19	20	2
Arrasate Zoo	5	1	0	4	7	16	2
Cons Fercon	5	1	0	4	17	34	2
Elisabeth	5	1	0	4	9	22	2
HMKL	5	0	0	5	11	40	0

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Aurrera Bolie	5	5	0	0	20	4	10
Pub People	5	5	0	0	39	12	10
Cer Leintz	5	5	0	0	25	9	10
Danok Lagun	5	3	1	1	23	15	7
Koka Juniors	5	3	0	2	17	13	6
MSM Ingenier	5	3	0	2	19	7	6
Zotz Motz	5	3	0	2	19	17	6
Artzankos Udalaiz	5	2	1	2	14	12	5
Leya	5	2	0	3	14	16	4
Ke Oxtias	5	2	0	3	32	20	4
EX Lete	5	2	0	3	19	22	4
Cartonajes Igamo	5	2	0	3	16	22	4
Perrahotsa	5	2	0	3	13	18	4
Pepelus	5	1	1	3	13	19	3
Petroleros	5	1	1	3	9	18	3
Kriskibalda	5	1	0	4	14	24	2
Resakas	5	1	0	4	6	24	2
Baneuko	5	0	0	5	6	48	0

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 5 - Sortu informatika 7
Arrasate Kirolak 6 - Alealee 2
Argi Ibili 1 - Sokoakoak 3
Bukanak 8 - Totem 5
Toss Tehaman 0 - Gualtrapas 10
Gaztetxokoa 2 - Frantziskanner 8
D. A Iriztu 8 - Uglys Txinato 1
Tronkoteak 0 - Orlando Piratas 1
Kamasutra 3 - Jotakabau 3

B Taldea

Los Heredia 2 - Hirei 1
AC Surcos 4 - 6º Proiektua 0
Ojo Avisore 2 - Okoretegi Taberna 2
Berango Sukaldeak 3 - Kopyprest 6
Fraguel Gol 2 - Kirten Tropel 0
Aizpun bila 3 - Lorategi 1
Adelaida Haizea 8 - Los Dalton 3
Fosforos 5 - Txeyenex 4
DKB 4 - Altza Porru 0

E Taldea

Ex Lete 0 - Aurrera Bolie 1
Pub People 5 - Perrahotsa 1
Resakas 2 - Cer Leintz 5
Zotz Motz 4 - Artzankos Udalaiz 5
MSM Ingenier 3 - Leya 0
Petroleros 3 - Ke Oxtias 2
Danok Lagun 4 - Koka Juniors 1
Kinito Team 1 - Pepelus 5
Kriskibalda 5 - Baneuko 2

D Taldea

Cons Fercon 2 - Potosorri 5
No Comment 3 - arrasate Zoo 1
Anbotoste 5 - Txarokis 1
Insert Coin 4 - Borrock Roll 6
Nuevo Taberna 1 - Irati STS 2
Los Dimy 4 - A ti que te importa 6
Ganbelas 0 - Trikiti 3
Elisabeth 3 - Betrayer 6
Lautherbrunnen 14 - HMKL 4

Hurrengo partiduak

Larunbata 11 Zaldibar

8.50 Los Heredia - Fraguel gol
10.00 Kakajauri - Toss Tehaman
11.00 Aurrera Bolie - Artzankos Udalaiz
12.00 AC Surcos - Okoretegi Taberna
13.00 Kamasutra - Alealee
14.00 Orlando Piratas - Gualtrapas
15.00 Lautherbrunnen - Arrasate Zoo
16.00 Sortu informatika - Totem
17.00 Los Dimy - Ganbelas
18.00 Ojo avisore - Lorategi
19.00 Betrayer - Irati STS

Iturripe A

11.00 Txeyenex - Kirten Tropel
12.00 Resakas - Ke Oxtias
13.00 Bukanak - Jotakabau
14.00 Anbotoste - A ti que te importa

15.00 Kinito Team - Koka Juniors
16.00 Potosorri - Borrock Roll
17.00 Fosforos - Los Dalton
18.00 DKB - 6º Proiektua
19.00 Ex Lete - MSM Ingenier

Iturripe B

13.00 Kriskibalda - Perrahotsa
14.00 Con Fercon - Nuevo taberna
15.00 Hirei - Kopyprest
16.00 No Comment - Txarokis
17.00 Zotz Motz - Baneuko
18.00 Elisabeth - Trikiti
19.00 Petroleros - Danok Lagun

Igandea 12 Zaldibar

8.50 Gaztetxokoa - D.A Iriztu
10.00 Berango sukaldeak - Altza Porru
11.00 Argi Ibili - Frantziskanner
12.00 Pub People - Cer Leintz
13.00 Arrasate Kirolak - Sokoakoak

Iturripe A

11.00 Pepelus - Leya
12.00 Insert Coin - HMKL
13.00 Aizpun Bila - Adelaida Haizea

Protagonistak

**Santi Arana
MSM Ingenieria
Integral**

— **Nolakoa izan da partidua?**

— Leyaren kontra neurtu ditugu indarrak eta 3 eta 0 irabazi, beraz ondo joan zaigu. Hala ere, asko kostataka garaipena izan da, azken arte lehian ibili gara.

— **Nola doa txapelketa zuentzat?**

— Joan zen urtean hobeto hasi ginen. Gaur arte bost neurketa jokatu ditugu hiru



irabazi eta bi galduz. Ez goaz txarto baina hobeto joan gitezkeen.

— **Epaileekin zer**

moduz?

— Epaileena betiko kontua da eta ni ez nago ados. Epaile lanetan edozein jokalarari jartzen da, askotan ideiarik ez duena eta edozer gauza pitatzen du. Zuk jokalaririk bezala dena ematen duzu kantuan eta epaileak erabaki okerrak hartzen dituenen erre egiten zara taldearendako kaltegarriak izan daitezkeelako. Orena antolakuntzak epaileak jartzea litzateke.

— **Kornerrak eskuaz ateratzen dira Zaldibarren, ondo iruditzen zaizu?**

— Eskuaz ateratzen dira eta ez dertzot txarto. Hala ere,

hankaz ateratzea hobe litzateke, eskuaz gehiago kontrolatzen duzu eta hankarekin zailagoa izango da. Gure taldeari ondo datorkio eskuaz ateratzea buruz ondo gabiltza eta.

— **Lesionaturik izan duzue taldean?**

— Zorionez aurten ez.

— **Zaldibar edo Iturripen non hobeto?**

— Zaldibarren duda barik. Kantxa handiagoa da eta hobeto moldatzen gara. Gure taldea ez da teknikoa, indarrez ateratzen ditugu partiduak aurrera eta horregatik Zaldibarren gustorago gabiltza.

**Jose Antonio Eguren
Hirei**

— **Partidua gogorra izan da?**

— Gogorra eta gainera txarto joan zaigu, beraiek bi gol txurro sartu dizkigute eta ezin izan diogu markagailuari buelta eman. Azkenean 2 eta 1 galdu dugu Los Heredia taldearen kontra. Dena dela, esan behar dut ez direla gu baino hobeak izan.

— **Nola daramazue txapelketa?**

— Nahiko ondo, hiru par-

tidu irabazi ditugu eta bi galdu. Bigarren fasea gero eta gertuago ikusten dugu.

— **Taldean izan duzue lesionaturik?**

— Orain arte ez. Kolpe batzuk bai baina lesio serioarik ez.

— **Nondik dator Hirei izena?**

— Zarugalden altzari dena bat dago izen horrekin eta hortik dator. Bestalde esan behar da taldekoak kuadrilako lagunak gara.

— **Zer da zailagoa jokatzea edo epaitzea?**



— Epaile lana, askoz ere zailagoa gainera. Erantzunikun handia duzu eta gano-

raz egin behar den lana da.

— **Kornerrak eskuaz ateratzen dira Zaldibarren, ondo dago?**

— Hobeto eta zailagoa hankaz litzateke. Eskuaz asko kontrolatzen da baloiaren norabidea. Baina arauak direnez dugunarekin konformatu behar.

— **Talde faboritoak zeintzuk dira?**

— Fosforos, argi Ibili eta Adelaida kontuan hartzeko taldeak izango dira eta hauen gain urtero bezala egongo da sorpresaren bat.

INGENIERIA INTEGRAL EN EDIFICACION E INDUSTRIA

M.I.N.P. IHARDUEREN INSTALAKUNTZA
SEGURTASUN IKERKETAK
LARRITASUN EGITASMOAK- ALDEGITE PLANAK
MAKINEN HOMOLOGAZIOA
INGURUGIROAREN NEURKETA IKERKETAK - EKOGESTIOA
INSTALAKUNTZA INDUSTRIALEN LEGEZTAPENA
AIREAREN TRATAMENDU ETA AIREZTAPENA
INSTALAZIO PROIEKTUAK • ELEKTRIKOAK
• GASA ETA AIRE KONPRIMITUA
• BEROGAILU ETA AIRE EGOKITUA
AURREKONTUEN GESTIOA
PERITAZIOAK



*Injineritza eta Kontultaritza
Zerbitzuak*

gasteiz • tfnoak: (945) 22 81 89 - 62
arrasate • tfnoa: (943) 79 05 07



Los Heredia




Danok Lagun



Sokoakoak



MSM Ingenieria Integral



**ARRASATE KIROLAKEN aukera
berezien txokoa estreinatu dugu**

**Prezio sinestezinak!!
Zatoz eta egiazta ezazu!!**

Kontzeziño kalea, 8 • Tfnoa: 79 46 12 • ARRASATE

Sebero Altube

Musikari, euskaltzale eta bertan ezezaguna

Beñardo Kortabarria

Hilaren 8an 116 urte bete dira Sebero Altube Maalako arrabalean jaio zenetik. Data ez da garrantzitsu horietakoa, ez dauka eta borobiltasunik. Edo-

zein modutan hor dago efemerideen artean, eta Sebero Altube gogoratzeko une egokia da. Hemen bada Seberori eskainitako plaza bat eta izen horrek ez dio askori hori baino gehiago esaten.

Musikari, euskaltzale, hizkuntzalari, politikoko filosofo, aber-tzale, enpresa-gizon, asmatzaile... zer ez zen izan 1879. urtean Arrasaten jaio zen gizon hura. Zailak izan ziren, gai-


nera, bere bizitzako lehen urteak. Eta horregatik, akaso, meritu handiagoa dute arrasatearraren lorpenek. Aitak ozpindu zituen Sebero Altuberen bizitzako lehen urteak, gizon zakar eta gaiztoa ei zen, etxekoekin eta kanpokoekin portatzen ez zekiena. Azken hatsa ospitalean eman zuen, bakar bakarrik eta diru barik. Ez da arraroa egoera horretan Sebero Altubek maitasun bila amaren magalean bukatzea. Bi eredu oso desberdin izan zituen, eta itxura baten onena aukeratu zuen, bizitza osoan besteei laguntzeko prest egoteko gizona izatea ahalbideratu zuena

Familian ama izan zuen lehen euskarri, baina ez bakarra, Benigno bere anai nagusiarekin ere harreman handia izan zuen eta.

TXIKITATIK MUSIKARI

Eragin handia izango zuen Benignok bere anaiarengan eta baliteke Seberoren musikarekiko zaletasuna anaiarekin zituen harremanen ondorio izatea. Seberoren lehen maixua Juan José M. Rodríguez izan zen, "Maixu zaharra" goitizenez ezaguna, solfeoaren oinarriak jarri zizkiona. Victoriano Balerdi organujoleak eman zizkion lehen musika ikasketak. Berez hezitako gizona izan zen neurri handi batean Sebero, baina ezin ukatu hasierako ikasketen garrantzia. Dultzaina, txistua, klarineta, bibolina, rekintoa, kitarra... menpe-ratzera iritsi zen.

Bere garaian oso famatua



Sebero Altube, berez jakintsu egindako gizona.

izan zen Benigno eta Sebero Altubek eta Kristobal Bediak osatu zuten dultzainari hirukotea. Igandero herriko plazan jotzen zuten, baina auzoz auzo eta herriz herri ibili ziren, Lizarran bertan, dultzainaren erreinuan, lehiaketa batean lehen saria lortzeraino.

Musika munduan, dultzainarenak lehen pausuk besterik ez ziren izan Seberorentzat. Gerora herriko Bandan jo zuen eta zuzendari ere izan zen. Ez zuen asko iraungo jaioterrian. Kanpora irteko lehen aukera ikusi zuen Gernikako Bandaren zuzendari postua betetzeko lehiaketa kaleratu zenean. Aurkeztu eta lanpostua berarentzat, 1901. urtean, 23 urte zituela. Banda arrunta zena bere agindupean entzutetsu bihurtu zen denbora laburrean. Bi urte beranduago Gernikako lehen gizonezkoen abesbatza sortu zuen eta berekin lehiaketa ugari irabazi zituen. Orduko kroniketan Seberok kantuei ematen zien entonazio berezia azpimarratzen zen gehienbat. 1916. urtera arte, musika munduak bete zituen Seberoren bizi-zako ordurik gehienak, baina orduan Alkartasuna lan-tegian sartu zen eta bandaren zuzendaritza utzi zuen. Dena dela, ez zuen horregatik musika erabat alboratu, 1922an Nahasitako Abesbatza sortu zuen Gernikan, 1930. urtean Elai Alai dantza-taldearen sorreran lagundu, 1933-34 urteen bitartean ELA-STVk ateratako 120 ahotseko kororekin partaide izan zen... bere hiletetan Gernikako bandak azken agurra eman zion arte.

IZEN BAT GIZON ASKO

Sebero Altuberen figura osotasunean hartuz gero, musikariaren izaera nabarmentzen da, baina gainontzeko arloak agerian utziz.

Gernikan errotu zen gizon hura ez zen ez gauza bakar



Ezkerretik eskubira, Benigno Altube, Kristobal Bedia eta Sebero Altube.

batera mugatu. Haurtzaroen dagoeneko antzematen ziztzaion euskararekiko kezka. Hizkuntzalari bikaina izatera iritsi zen, linguista askoren lanak irakurri eta ikertu

ondoren. Eusko Ikaskuntzan sorreratik egon zen eta Euskaltzaindian, berriz, ia hasieratik. Bizi izan zen garaiaren kontrako teoria sortu zuen, garbizalekeriaren aurka,

herrian erabiltzen zen hizkeraren aldeko apostua eginez. Erabilera jotzen zuen garrantzitsutzat, beste edozeren aurretik. Zeresana eman zuten liburu eta lan dexente argitaratu zituen, "Erderismos" eta "El acento vasco en la prosa y en el verso" besteak beste. Musikari sena hizkuntzalari-zara ere ekarri zuen, tonologiari garrantzia emanez.

Abertzaletasuna izan zen Sebero Altuberen beste ezauzgarrietariko bat, baina ez ideia politiko bezala, herriaren ondoan egotearen ondorio seguruen. Argi geratzen da arrasatearren euskalduntasuna berak landutako kanta eta liburuetan. 1931. urtean alkate izendatu zuen Gernikako herriak, Errepublikara garaiaren. Urte bereko ekainean Lizarran bilduko zen beste hainbat alkatekin batera Estatutua onartzeko. Hilabete beranduago alkateen batzarrera deituko zuen Gernikan. 1935. urtean dimisioa aurkeztu zuen, ez zegoen eta ados gobernadorearekin. Gernikarrek bere itzulera aldarrikatu zuten 1936. urtean, baina exiliora irten behar izan zuen, Frantziako Pabera.

Exilioan zegoela landuko



Agirre Lehendakaria, Sebero Altube eta hainbat arrasatear Lizarran Estatutua onartu zenean 1931. urtean.

zuen hain zuzen ere, bere nor-tasunaren beste alderdi bat Sebero Altubek, filosofoarena. Gernikako bonbardaketaren ondorioak ikusi ondoren, oinazearen zentzuagatik galdetu zion bere buruari, oinazearen arrazoiagatik. Eta izenburu horixe jarriko zion Frantziar argitaratu zuen liburuari, "La fonction de la douleur". 1958. urtera arte egongo zen Pabeko exilioan, 22 urte Gernikatik kanpo.

Kultur arloa alde batera, gizon praktikoa ere izan zen Sebero Altube. Gernikako Bandaren zuzendari zela, 1916. urtean, bere dohaiak ikusita, Alkartasuna lantegian gerentzia-zuzendaritza lana eskaini zioten. Banda utzi eta gogoz ekin zion lanari. Han egon zen denboran, eskatzen zitzaion lana baino gehiago eskaini zien lantegiko jabeek,



Sebero Altube Plazaren inagurapena, 1977-2-19.

pistola bat asmatzera ere iritsi zen eta, Sivispacem izenekoa. Ezuste berri bat orduan

Seberok eman zuena, baina lana eginaz emandakoa, ordena handiz ateratakoa, bere

bitzita osoa bezala. 1963ko abuztuaren 27an hil zen, tronposi baten ondorioz.

Josemari Velez de Mendizabal

"Sebero Altubek ez zuen sekula jatorria ahaztu"

Sebero Altuberi buruzko gauza gehiago dakienik ez da egongo Arrasaten. Ez alferrik 1979. urteko otsailean berari buruzko liburua kale-ratu zuen Jose Mari Velez de Mendizabalek. Aipatutako liburuaren sarreran argi uzten da liburu horren arrazoiak: arrasatearrei Sebero Altube nor zen ezagutaraztea.

- Zer esan daiteke Sebero Altuberi buruz?

- Gauza asko, baina laburtzeko esango nuke Arrasatek ohituta gauzkala noizean behin honelako gizonak ematera eta Sebero horrelako adibide bat dela. Berez sortutako gizona izan zen, herri txiki batetik irten-dakoa, musikaren eta batu-taren bitartez beste arlo askotara iritsi zena. Sasoi


hartan puntako gizona izan zen.

- Gehienbat musikari izan zen?

- Duda barik. Inguruan bazegoen musikarekiko zale-tasunik eta txikitatik bizi izan zuen giro hori. Musikak eman zion hain zuzen bere burua-ren goratzea, eta horrek ekarri zuen ondoren beste egin-kizun batzuetarako bideen irekitzea. Exiliora aldegin beharra ere izan zuen eta bertan izan zuen goi-mailako jendea ezagutzeko aukera.

- Beraz, harreman horiek eman zioten janzteko bidea?

- Ikasi barik ez dago ezer eta Seberok aukera horretaz baliatzeko gaitasuna izan zuen. Nik benetan azpimarratuko nukeena horixe li-



tzateke, berak bere burua janzen jakin zuela, eta eze-rezetik une hartan iritsi zela Euskal Herrian egon zitekeen zientzia mailarik altu-nera.

- Jatorriz arrasatearra zen, baina lotura handirik gabekoa ezta?

- Beno, Seberok herri-koitasuna bereganatzen jakin zuen, hor dago "erderismos" liburua, sasoi hartako korrontearekin eten zuena. Berak liburuetan jaso izan zuen "hori joan joiak ala etorri jatok?" Arrasaten entzundako esaldia, beste inon agertzen ez dena eta horregatik esaten dut nik ez zuela inoiz ahaztu bere jatorria. Bisitara joaten zitzaizkion arrasatear guztiak gogo onez hartzen zituen gainera.

Egia da lehen aukeran aldegin zuela hemendik, baina uste dut gehiago izan zela bere aitak utzitako irudi txar-ragatik eta horrek nolabait egonezina sortzen ziolako. Izan ere, familia denak aldegin zuen Arrasateetik. Gaur egun ez dago hemen Altuberaren ondorengorik.



Urbina-Maltzaga neurketa zaia zapatuan. Rugbykoek lehen garaipena lor dezakete.

Rugbykoek ezin dute kale egin UPV taldearen kontra

Arrasateko Rugby taldeak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarren kontra jokatu dute zapatuan arratsaldeko 4etan Garagartzako zelaian. Gipuzkoako ligako bi taldeek denboraldiko bigarren ihardunaldia jokatuko dute.

Patxi Gorosabelek bi baja izango ditu, Asuategi eta Agirreurreta jokalariek. Biak aurrendenboraldian lesionatu ziren eta sasoiaren ezin jarritan dabilta. Besteek normaltasunez entrenatu dute asteen zehar.

Euskal Herriko Uniber-

tsitateak taldeak betidanik jokatu du maila honetan eta arrasatearrak jeitsi berriak direla kontuan hartuta, ez lukete arazorik izan behar garaipena lortzeko. Horrela balitz, denboraldiko lehen puntuak lortuko lituzkete etxeko rugby jokalariek.

Urbina Maltzagak laugarren sailkatuaren bisita jasoko du

Samaniegoren mutilek denboraldiko 10. partiduari egingo diote aurre zapatuan. Aurkaria Areixo talde galiziarra izango da eta parti-

dua Iturripen egongo da ikusgai arratsaldeko 6.30etan.

Arrasateko jokalariek ondo dabilta azken boladan eta badirudi Samaniegoren taldea gero eta sendotasun gehiago erakusten ari dela. Dena dela, zapatuko neurketa ez da irabazteko samurra izango. Galiziako taldeak bost partidu galdu ditu eta lau irabazi, 14 punturekin sailkapeneko 4. tokian dago.

Urbina Maltzagako jokalariek normaltasunez entrenatu dute eta zaturako ez da ezusterik izango jokalariei dagokienez.

LABURRAK

Eskubaloikoek Hondarribian

Eskubaloiko lehen mailako taldea Hondarribiraino joango da domekan eta bertako taldearen kontra neurtuko ditu indarrak eguerdiko 12.30etan. Arrasatearrentzat irabazteko moduko taldea dirudi. Gaur arte lau neurketa jokatu ditu, hiru galdu eta bakarra irabaziz. Rosa Lasagabasterren mutilek hiru jokatu dituzte eta oraindik ez dute garaipena ezagutu. Aukera ona izango dute Hondarribia aldean igandean.

Mondra taldea Zumarragan igandean

Urolak eta Mondrak denboraldiko 13. ihardunaldia jokatuko dute domekan arratsaldeko 4.30etan Zumarragako Argixao futbol zelaian. Urolak hemeretzi puntu ditu eta sailkapeneko 7. tokian dago. Mondra azkena da bost punturekin. Zivojevicen mutilak dauden egorea kritiko eta kezagarritik irteteko nahi eta nahiez irabaziko beharko lukete partidua baina azken neurketakoa errepikatzen bada, beste jipoi batekin etor daitezke.

Emakumeen taldea Atxabalpen

Mondrako emakumeak eta Dumboa nor baino nor izango dira domekan eguerdiko 12etan Atxabalpen. Sailkapeneko buruan dauden bi taldeak izango dira lehian. Arrasatearrak irabaziz gero lider jarriko lirateke.

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETAKO

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50



LORAMENDI



INTERSPORT®



DENDA BERRIA, ZUGANDIK GERTUAGO

Bertan aurkituko duzu kirol jantzi eta oinetakoetan aukerarik zabalena:

- Forro polarrak
- Txandalak
- Txamarrak
- Zapatilak
- Futbol materiala
- Mendi materiala
- Etab.

Behobia-Donostia herri lasterketan ehun arrasatearretik gora

Behobia-Donostia 20 kilometroko herri lasterketa ospetsua eta arrakastatsua burutuko da domekan. Aurten Donostiako Fortuna taldeko antolatzaileek 9.000 partaideko muga gainditzea espero dute eta horregatik 10.000 dortsal prestatu dituzte. Partehartzailen artean arrasatear asko egongo da. Arrasaten Lora-mendi Kirolak kirol dendan izena emateko aukera zegoen, 160 dortsal ekarri zituzten eta berehala saldu ziren guz-

tiak. Behobiatik Donostiaraino lasterketa irekia da; hau da, ez dago diru saririk ezta dietarik ere baina hala ere izen handiko korrikalariak egoten dira bertan.

Korrikalariak lasterketa egunerako hainbat ohar kontuan hartu behar dute. Izan ere, lasterketa ondo hasi eta bukatzea da helburua.

• Lasterketa hasi baino lehen beroketa ariketak egin behar dira eta behin bukatuta luzatze ariketak. Lesiorik ez izateko nahi eta nahiezko bal-



dintza da.

• Lasterketan zehar indarrak neurtzea komeni da.

Erritmoa kontrolatu hasieratik berehala ez nekatzeko.

• Lasterketa egunean ez estreinatu kamiseta, fraka eta zapatilla berriak. Gorputza ohituta dagoen arroparekin egin korrika. Fraka motzetan korrika egiten bada hanka artea ez erretzeko baselina eman eta baita besapean bular inguruan ere.

• Lasterketa hasi baino hiru ordu lehenago jan. Hiru orduko epea betetzea garrantzitsua da: pajarak eta botakak gora ekiditzeko.

Udala moto eta motozaleen topaleku

Arrasateko motozale elkarteak antolatuta Trial txapelketa burutu zen Udalan domekan goizeko 10etatik aurrera. Bost mailatan banatutako

32 partehartzaile bildu ziren bertan. Arrasateko proba Euskadiko txapelketarako baliogarria zen. Ondoko koardroan dituzue kategorია bakoitzeko irabazleak.



Jubenilak

Juan Carlos Rodriguez - 112 puntu

Juniorrak

Sergio Sainz - 14 puntu

Ibon Zorrilla - 18 puntu

Cesar Sanchez - 27 puntu

Kadeteak

Gonzalo Rodriguez - 9 puntu

Borja Tabares - 13 puntu

Gaizka Ruiz - 19 puntu

Beteranoak

Jabier Aldekoa - 3 puntu

Roque Tabares - 15 puntu

Vicente Palomino - 33 puntu

Seniorrak

Imanol Amundarrain - 9 puntu

Diego Urreta - 12 puntu

Migel Angel Bermejo - 18 puntu.

Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE



ZERBITZU ONENA, ZURE EROSKETAK EROSOENAK IZAN DAITEZEN.

Behar duzun guztia giro atseginean aurkituko duzu Okendo Kirolak-en, gure gogoaz zure satisfakzioa baita eta merezi duzun zerbitzua eskaintzea gure lehen helburua.

Erosketak egitea plazer bat izan daitekeela sinisten baduzu bisita gaitzazu eta frogatuko duzu.

Zatoz Okendora!

 OKENDO
KIROLAK

David Fernandez eta Marieli Otero

Gatzagako Artisau Ferian erakusle


Domekan III. Artisau Langintzen Feria egingo da Gatzagan. Egun horretan Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako artisauak egingo dute topo herri txiki horretan. Ondorengo hitz hauek Gatzagan larrugintza tailerra daukate eta feriarekin antolatzaileetarakoak dira

— Aurtengo artisau feria hirugarrena izango da. Aurrekoekin desberdintasunik izango du?

— Bai, kalitateari eta kantitateari dagokionak gainera. Kalitate aldetik feriarekin azpiegitura hor dago. Artisauak euren lana erakusteko leku hobea aurkituko dute, Gatzagako udalak tresna berezi batzuk erosi dituelako artisauak euren produktuak jarri ahal izan ditzaten. Kantitateari dagokionez artisau gehiago etorriko dela aipatu behar. Lehenengo feriarako 9 artisau etorri ziren, bigarrenera 12 eta aurtengora 15 etorriko dira. Gainera ez dugu iazko artisau berdin bat bera ere ekarriko, hau da, guztiak izango dira etorri berriak.

— Ze artisau etorriko dira domekan?

— Era guztietakoak. Ikusi ahal izango diren langintzak abarkak, tapiz eta larrugintza, keramika, euskal keramika, aintzina-ko musika tresnak, ehun artisautza, egurrezko taila, maskarak eta txontxogiloak, putxerak, burni forjaketak, bitxigintza, harri tailagintza, danbolinak, beira eta egurra izango dira. Guk ere gure larrugintza tailerra eta denda zabalik izango dugu. Bestalde, beste urteetan



bezela, Gatzagako emakume taldeak taldea egingo du, gaztainak ere salduko dira eta taberna bat zabalduko da otarteko eta edariekin. Trikitilariak eta txalapartariak etorriko dira eta badirudi Kukubiltxo taldea ere etorriko dela. Ea aurtenean beste urteetako giroa sortzen den eta dena ondo ateratzen den.

— Zer dira putxerak?

— Hemengo jendeak ez ditu ezagutzen, Bizkaiko ohitura dira eta. Leonetik Bilbora zihoan treneko makinista eta fogoneroek erabiltzen zuten asmakizun bat da. Labe txiki baten antzerako tresna bat da eta leku batetik bestera janaria barruan duela eraman

daiteke. Trenerako erabiltzen zen ikatzarekin nahiz makinako baporearekin funtzionatzen zuen... sukalde bat zela esan daiteke. Putxera horiek egiten jarraitzen duen bilbotar bat etorriko da jendaurrean nola eta zertarako egiten ziren erakusteko.

— Zer moduzko harrera izan dute orain arteko feriek?

— Oso ona. Herriko jendea pozik dago feriarekin eta kanpotik ere jende asko etortzen da bueltatxo bat ematera, kotxeak aparkatzeko tokiak berehala betetzen dira eta sekulako hiladak sortzen dira hemen. Hori seinale ona da baina

baita konpondu beharreko arazo bat ere. Aurtenean kotxeak uzteko leku bereziak egokitu ditugu.

— Feria ikustera jende asko etortzen da baina artisauak saltzen dute?

— Feria bukatzerakoan artisauak hitzegiten dugu nola joan zaien jakiteko. Orain arte denak atera dira pozik hemendik eta jakina, badakigu hau ez dela Getxoko feria baina bere helburua dauka eta bere fruituak eman ditu. Jende askok artisauak Gatzagan ezagutu eta gero enkarguak egiten diete, beraz, feria hau artisauarekin kontaktuan jartzeko bide bat da.

— Orokorrean hitzeginda, artisauen bizimodua zaila da?

— Gogorra da. Artisaua bere kabuz konpondu behar da gauza guztietarako: produktua berak egin, berak saldu eta berak kobratzen du, azkenean, artisauak bere merkatua bilatu behar du.

.....

“Jende askok artisauak Leitz-Gatzagan ezagutu eta gero enkarguak egiten diete”

Frankfurt eta Danimarkako antzerki taldeek performanceak eskainiko dituzte Gaztetxean

Domekan eta AGAKOK antolatuta, performance estiloko bi antzezlan izango dira ikusgai arratsaldeko zazpitan herriko Gaztetxean. Frankfurteko "Art und Shock" eta Danimarkako "Dottir" antzerki taldeak izango dira bi antzezlanok interpretatuko dituztenak.

"Art und Shock"

1994aren amaieran sortu zen talde hau hiru gaztek osatzen dute eta guztiak dira aire libreko antzerkilari profesionalak. Euskal Herrian egiten ari diren bira honetan bere azken lana erakusten ari dira: "Como, luego soy". Antzezlan honetan jateko orduan kultura desberdinek dauzkaten ohiturak jorratzen dira.

Hiru antzerkilarien helburua ikusle goaren bihotzera heltzea da eta interesgarria iruditzen zaien guztia jaso eta aprobeztatzen dute.

Talde honek kalean, lan-tegi zaharretan nahiz Andaluziako desertuan eskaini ditu bere emanaldiak. Euren an-



Bi antzezlanok performanceak izango dira.

tzezlanetan performance-a, mozorroak, musika eta instalakuntza bereziak erabiltzen dituzte eta euren gorputzekin, ahotsarekin, indarrekin eta fantasiarekin prest dagoen guztia konkistatzen dute.

Euskal Herriaren egoera politikoa ezagutzen dute eta identitate nazionala defendatzeko datozela diote.

"Dottir"

1993an elkartu ziren talde hau osatzen dute hiru neska danimarkarrak. Performance-etan euren gorputzarekin ikertzen dute eta batipat inprobisazioarekin egiten dute lan, hau da, performance bakoitza behin bakarrik gertatzen da, orijinala eta bakarra da.

Antzerkilari hauek gauzak ikusten eta sentitzen duten moduan adierazten dituzte: apurtutako gorputzak, plastikozko pentsamenduak, oina-zea eta arnasketa klaustrofobikoa.

Hiru neska hauek edertasun zikinean sinesten dute, hau da, modu politean egiten egi dute botaka.



ARRASATEKO IRAKASLE ETA IRAKASLE OHIEN ARTEKO AFARIA!

Arrasateko AEK-ko euskaltegian edo gau-eskolan irakasle izan bazara, afari bat daukazu abenduak 15ean (ostirala). Kriston giroa ziurtatuta dago, beraz anima zaitetz eta eman zure izena AEK-n. **Tfnoa: 79 70 77.**
Izena emateko epea: azaroak 24.

Oharra: Irakasleen zerrenda osoa ez daukagu, beraz gonbidapen gutuna jasotzen ez baduzu jo zuzenean ERDU-AEK-ra.



Z E R N A H I A G O ?

Maite Azkarraga "Belem" dendakoa



- Zergatik dira Portugalgo produktuak hain merkeak? Zuzenean handik ekartzen ditugulako.
- Jendeak erosten du? Ez nahi beste, baina bai.
- Sei galtzerdi pare 500 ptatan. Nolatan hori? Eskaintza berezi bat da.
- Kasu horretan kalitateak eta prezioak badu zerikusirik? Ez, eskaintza berezi bat da eta oso kalitate oneko galtzerdiak dira.
- Zenbatero joaten zarete Portugalera? Hilean behin.
- Nora konkretuki? Iparraldera, Galiziatik gertu.
- Kirolik egiten duzu? Ez, ez daukat denborarik eta.
- Janzten dituzu hemengo arropak? Ez.
- Zer moduz janzten dira arrasatearrak? Nire ustez oso ondo.
- Animalia bat izatekotan? Zaldia.
- Kafe hutsa ala ebakia? Hutsa.
- Alergiarik? Ez.
- Zein kolonia erabiltzen duzu? "Aire de Loewe".
- Negurako kolore bat? Beltza eta marroia.
- Zerk ematen dizu amorrua? Injustiziak.
- Zilarra ala urrea? Urrea.
- Arrasateko txokorik politena? Portaloa.
- Eta zatarrena? San Andres.
- Entzun duzun azken kontzertua? "Pink Floyd"ena.
- Erretzen duzu? Gutxi.
- Erretzekotan, zer? LM.
- Zure zenbat abizen dakizu? Lau besterik ez.
- Zein da laugarren hori? Sagastigutxia.
- Nongoa da? Bergarakoa.
- Hasi zara Gabonetako opariak erosten? Ez.

LABURRAK

AEDko lehiaketako partaideak

AED lehiaketetan 233 lagunek hartu dute parte. Ipui-
nean 134k; poesian 10ek; ber-
tso-paperetan 17k; komikian
48k; argazki, diapositiba eta
bideoan 13k eta Jokin Zaitegi
Itzulpen Laburren sariket-
tan 11k. AEDkoek partaide-
tzaz oso balorazio positiboa
egin dute. Honezgero epai-
mahai lanean ari da eta San-
tamas bezperan emango dira
jakitera saridunen izenak.

EKDren aldeko prentsaurrekoa

Euskararen inguruan lane-
an ari diren 28 taldetako orde-
kariak eta Deba Garaian eus-
kalgintzan ezagun diren hain-
bat pertsonak, UNEDeko Eus-
kal Kultur Departamentuaren
aldeko prentsaurrekoan har-
tu zuten parte. Elkarrekin ida-
tzi-plataforma bat kaleratu
zuten, EKDrri lana egiten
jarraitzen uzteko eskatuz.
Prentsaurrekoan udaleko eus-
kara zerbitzu buruak hartu
zuen parte, J. F. Diaz de Tues-
tak, idatziaren edukina aur-
keztu eta EKDK izan duen
garrantzia azpimarratzeko.

=KANPAZAR FIAT AZKEN BELAUNALDIA TEKNOLOGIAN.



BRAVO

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 184 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 193 Km/h)
2.0 20v (147 cv, 210 Km/h)
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

ERAKUSKETA:
Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa 79 77 66



BRAVA

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 180 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 190 Km/h)
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

TAILERRA
Bizkaia Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tfnoa 79 41 98

Ez pasatu orrialdea!

Iragarki hau irakurtzeak lan asko kenduko dizu.

Zure etxebizitza jantzi nahi baduzu, erreformak egin edo gelaren bat apaindu...

Behar duzun guztia **ANEREA**n aurkituko duzu: Sukalde eta bainu altzariak, keramika, logela, egongela eta sarrerarako altzariak, su-bajuak, elektragailuak, lanparak, apaingarriak...

Bai guzti, guztia zure zerbitzura:

- Salmenta
- 1.500 m²tik gorako erakusketa
- Diseinua
- Dekorazioa
- Erreformak
- Apaingarriak
- Muntaia, gremio guztiak

Eta dena toki berdinean!!



ANEREA

Laister zabaltzekotan!

GALERIA DEL HOGAR

Markulete Industrialdea 21, 22 pabilioiak
ARRASATE

• ESAERA •

“Hobe esa dezatela
‘hemendik korrika
ihesi irten zen’ eta ez
‘hemen erahil zuten”

EZEZAGUNA

• JEROGLIFIKOA •



Arabako herria.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11			12	
13		14			15		
16				17		18	
19			20				
21					22		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Panero poetaren izena. 9. Zerbaiten bukaeran. 10. Neu. 11. Neona. 12. Sodioa. 13. Anarkista. 16. Baieztatzeko hitza. 17. Lehor. 19. Azterketa. 21. Palestinako aintzinako hiria. 22. Bete.

Bertikalak 1. Erreminta, tresna. 2. Ikasketarik ez duena. 3. Gogait, higuin. 4. Oinazea, nahigabea. 5. Ontzat eman. 6. Leongo ibilgai-luetan. 7. Jakoben bederatzigarren semea. 8. (Ald.) Eguzki-sistemako zazpigarren planeta. 14. Irango moneta-unitate nagusia. 15. Adina. 18. Koordinadora Abertzale Sozialista. 20. Molibdenoa.

• HOROSKOPOA •

Aries Egunetik egunera animatua go ikusten zaitut. Aurrera irten duzu.

Taurus Txerrikiak jateak ez dizu indarrak emango baina bai gozarena.

Gemini Basahuntza bezala nonahi bizi zaitezke. Hori zorzea!

Cancer Azken boladan gogor jo dizu hego haizeak; astakeri handiegiak egin dituzu.

Leo Zeure onetik ateratzen zara moz-kortzen zaren bakoitzean.

Virgo Honelakoa zara: bakartia, negartia, beldurtia eta lotsatia.

Libra Ez zara umezurtza. Noizean behin gurasoekin gogoratu.

Scorpio Bihotzekoak emango dizu erretzen jarraitzen baduzu.

Sagitaris Zure pentsatzeko era miresten du ezagutzen zaituen edonork.


Capricorn Ibilkera traketsa duzu baina txiki-txikitatik zara horrelakoa.

Aquarius Aste honetan berri gazi-gozaok jasoko dituzu.

Piscis Hile honetako diru-kontuak egiten badituzu, musuzapia atera...

Otxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorniu

TELEBISTAREN TXOKOA

Barrelekaixoka: umeen artean arrakastatsu

Aurrera jarraitzen du Eider Otxoak aurkezten duen Barrelekaixoka lehiaketak. Umeen artean sekulako arrakasta izan du saioak eta askok deitzen du ATBra lehiaketan parte hartzeko. Datorren asteko taideak Maider Agirianok, Patricia Sierrak eta Aitziber Uribarrik osatutakoa eta Andoni Iburgurenok, Janire Ormaetxeak eta Mikel Ruiz de Azuak osatutakoa izango dira. Hainbat froga gainditu beharko dituzte bi taldeek baina bakar batek irabaziko du. Irabazleek Elkorok emandako walkman bana jasoko dute.

Barrelekaixoka lehiaketan parte hartu nahi baduzue, 77 06 90 telefonora deitu!




PROGRAMAZIOA



- 10 Ostirala**
20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
- 11 Astelehena**
20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
- 12 Asteartea**
19.30etan
Marrazki bizidunak
20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

KOMIKIA



- 13 Asteazkena**
20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Zinea
- 14 Osteguna**
20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Dokumentala
- 15 Ostirala**
20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

Etxe-Aundi

<p>1. PLATERA <i>Bi plater aukeran</i></p> <p>2. PLATERA <i>Haragia edo arraina</i></p>	<p> </p> <p> </p> <p> </p>	<p><i>Etxeko gozoteria</i></p> <p><i>Etxeko ardo gorria eta beltza</i></p> <p><i>Kafea</i></p>
---	-------------------------------	--

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1.Leopoldo, 9. Azke-
nean, 10. Ni, 11. Na, 12. Na, 13. Akra-
ta, 16. Bai, 17. Siku, 19. Esamina, 21.
Silo, 22. Asc.
Bertikalak: 1.Lanabes, 2.Ezikas,
3. OK, 4. Pena, 5. Onesti, 6. Le, 7.
Dan, 8. Onaru, 14. Rial, 15. Aina, 18.
Kas, 20. Mo.
Jeroglifikoa:
Laudio.

Etxebizitza

- **Erdialdean 90 m²ko pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua alokagai Maalako Arrabalean.** Jantzi-ta dago. Tfnoa: 77 02 59.
- **Pisua alokagai San Juanen.** Ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Dei egin gauez.
- **Gasteizen bi logela alokatzen ditut.** Tfnoa: (945) 27 86 79.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxabea alokatzen da Udalpe kalean (Erguin).** Tfnoa: 79 22 75.
- **Pisua salgai Erguin kalean.** Tfnoa: 77 02 01. Loli.
- **Garajea salgi Aldaigainen.** Tfnoa: 79 77 81.
- **Roneon lehen solairuan garaje itxia alokatzen da prezio onean.** Tfnoa: 79 18 95.
- **Eskoriatzako sarreran jantzitako pisua alokatzen da.** Tfnoa: 79 87 26.
- **Lagun bat behar da** Bilboko Alde Zaharrea pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 416 93 06. Maribel.
- **Bi oheko logela alokatzen da** eta nahiez gero pentsio osoan. Tfnoa: 79 40 53.
- **Lokala alokatu nahi dugu.** Egoera txarrean badago guk konponduko dugu. Tfnoa: 79 53 57. Maider.

Lana

- **Erizain laguntzailea** eta gerontologian esperientziaduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 30 85. Egurdietan deitu.
- **Aleman klaseak jasoko** nituzke, bakarrik edo taldeka. 10etatik aurrera. Tfnoa: 78 08 98.

- **Magisteritza titulodunak** OHoko klaseak emateko prest. Tfnoa: 79 98 73. Rakel.
- **Umeak zaindu** edota etxeko garbitasunak egin-gu nituzke. Tfnoa: 79 96 10. Egurdietan.
- **UBIra arteko edozein gaien klaseak** emango nituzke, euskaraz nahiz erdaraz, astelehenetik larunbatera arratsaldean. Tfnoa: 79 46 75. Gauez deitu.
- **Masaia terapeutikoa eta akupuntura.** Tfnoa: 79 18 02. Blanca Iñiguez.
- **Emakumea etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 31 58.
- **Esperientziadun kamioi txoferra lan egiteko gertu.** Tfnoa: 79 07 31. Alfonso.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Enpresaritzan lizentziatu batek klase partikularrak emateko prest.** OHO, 1. 2. 3. REM eta UBlko ikasleei. Tfnoa: 79 47 95.
- **UBI mailako matematikak eta fisika** irakatsiko dizkidan irakasle bila nabil. Ahal bada euskaraz. Tfnoa: 79 96 05.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egin,** umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko goizeko 8etatik 2etara. Tfnoa: 79 68 18. Idoia.
- **Filologia Klasikoan lizentziadunak,** latina, grekera mordemoa eta klasikoa emango lituzke. Tfnoa: 77 14 14. Dei egin 5etatik 7etara.
- **Neska prest etxeko lanak egin** eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 53 57. Maider.
- **Esperientziadun neska umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Injinerutzako 1. mailako** fisikako klaseak hartuko nituzke. Tfnoa: 71 50 72. Goizez deitu.

Salerosketak

- **Hispaniel Breton arrazako** bi txakur eme sal-tzen dira, 7 hilebetekoak. Txerto txartela dute. Tfnoa: 79 86 06.
- **Kerosenezko berogailu elektronikoa salgai.** Temperatura programatzeko du eta berri-berria dago. Tfnoa: 79 13 73.
- **Arditxakur kumeak salgai** 5.000 pta. tan. Tfnoa: 78 09 08.
- **Otsein markako garbigailua salgai.** Oso egoera onean eta gainetik betetzeko. Sofa-kama bata ere salgai dut. Tfnoa: 79 35 45.
- **Samsung markako idazteko makina salgai.** Prezioa: 18.000 pta. Tfnoak: 77 14 96 eta 79 29 68.
- **Oso egoera onean dagoen Seat 127a salgai.** SS-K. Oso prezio onean!. Tfnoa: 79 97 23.
- **Yamaha MT 8 X magnetofonoa salgai.** 8 pista. Berria. Tfnoa: (945) 27 44 26.

Denetarik

- **Igandean txandalen goialdea galdu zitzaidan** Eskoriatzako Eraña auzoan. Hartu duenak dei dezala 79 39 69 tfnora.
- **Garibaiko kolonpiotan umearen motxila galdu nuen** joan den ostegunean. Barruan karpeta eta jertsea zeuden. Tfnoa: 77 06 51.
- **Kefirra behar dut.** Emango dizkizazu ale batzuk? Tfnoa: 79 58 77. Patxi.
- **Arrabala dendan betaurreko graduatu batzuk agertu dira.** Zureak badira dendan bertan ditugu. Tfnoa: 79 23 40.
- **Mintza praktika egiteko** jatorrizko ingeles baten bila nabil. Tfnoa: 79 26 28.

Aste Gazte

Lana

• Asteburuetak egunkarier-tan argitaratzen diren lanpostu eskaintzak astero ezagutu nahi duzuenok, astearteetatik aurrera izango dituzue Gazte Bulegoan.

Ikastaroak

• "Kutxa Fundazioak" ikas-taro hauek burutuko ditu Arrasateko Udal Euskaltegian. A) Ikasketa-teknikak, 16-18 urte bitartekoei zuzenduta. Bost egun (abenduak 26, 28, urtarrilak 2, 4, 13). Orduetia: 10etatik 13etara. Kuota: 3.000 pta. B) Enple-

gu teknikak, ikasketak amaitu edo amaitzear dituzten gazteei zuzenduta. Bi egun (apirilak 20, 27). Orduetia: 9etatik 13etara. Kuota: 2.000 pta. C) Ahozko nahiz idatzizko komunikazioaren teknikak, komunikazio hobetu nahi duten gaztei zuzenduta. Bost egun (martxoak 2, 9, 16, 23, 30). Orduetia: 10etatik 13etara. Kuota: 3.000 pta.

Topaketak

• "Emakumeentzako kirol aisialdia" Deba Garaiko, kirol politikari buruzko III. topaketak.

Bergaran, azaroaren 16an. Prezioa: emakume-elkarte, klub eta ikasleentzat 4.000 pta., gainontzekoentzat 7.000 pta.

Gazteok bizikletan

• Argazki lehiaketan saritu ez diren lanak hil honetan zehar jaso daitezke Gazte Bulegoan.

Lehiaketak

• "Gordexolako Haran" VIII. ipuin lehiaketa. 5-30 urte bitarteko gaztei zuzenduta. Kategor-ia ezberdinetan banatuta. Gai librea. Sariak: 5.000 pta. eta 80.000 pta. bitartekoak. Epea: abenduak 11.

"Hogei urterekin, pertsona suemaile izaten da, baina behin berrogei urte bete ezker, suhiltzaile bilakatzen da"
WITOLD G. GOMBROWICZ.
IDAZLE POLONIARRA



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean, merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!



**TXIRRI, MIRRI eta
TXIRIBITON**

**SARRERA:
600 PTA.
(SUPERBAT
TXARTELDUNAK
400 PTA.)**

**SARRERAK ALDEZ
AURRETIK SALGAI**

AMAIA ANTZOKIKO
TAKILAN
ARRATSALDEKO
6 ETATIK 8 ETARA.

**AZAROAK 11,
LARUNBATA**

**ARRATSALDEKO 5 ETAN ETA 7 ETAN
AMAIA ANTZOKIAN...**



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

IÑURRATEGI ANAIK eta MUGARRI, ezinezkoa erraza egiteko gaitasuna



K-2 (94-06-24)



Cho Oyu (95-09-11)



Lhotse (95-09-27)



Gaur egun, mendizaleen artean Iñurrategi anaiak ditugu garaile. Baina Todoterrenoetan garaile dena Ford-en Maverick berria da. Bere indarra edozein gailur gainditzeko gai da eta bidean edozein autok bezala erantzuten du.

**Maverick eta Iñurrategi anaiak,
natura menperatzeko jaioak!**

M MUGARRI